TOLOSAKO UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, OLENTZEROREN ETORRERA ETA ERREGEEN KABALGATA ANTOLATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUENA, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA

LEHENA – KONTRATUAREN HELBURUA

Preskripzio tekniko partikularren plegu honen xedea da Tolosako Olentzeroren Etorrera eta Errege Kabalgata antolatzeko eta koordinatzeko gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea.

Olentzeroren etorrera eta Errege kabalgataren antolaketa lanak bi fasetan banatu ohi dira. Batetik, San Esteban auzoan kokaturik egon ohi den Gure Zirkuan, lehen harrera ahalbidetuz, bertara, aniztasun funtzionala duten edota jendetza kopuru altuak sortzen dituen ekitaldietan parte hartu ezin duten haur eta helduei, Olentzero eta erregeez gozatzeko aukera ahalbidetuz. Bestetik haurrei aukera eskaintzen zaie zuzenean gabonetako magia modu pausatu eta goxo batean gozatu eta Olentzero eta beren errege magoei zuzenean eskutitza eman ahal izatea.

Bestalde eguraldi txarra eginez gero, espazio honek ahalbidetzen du modu guztietara Olentzeroren etorrera eta errege magoen kabalgata ospatu ahal izatea eta bertan behera utzi behar ez izatea.

Tolosako udalak ez ditu behar diren pertsonal baliabideak eta espazialak lan hauek egiteko, beraz, guztiz beharrezkoa da kanpoko enpresa edo elkarte batek eta konkretuki **Gure Zirkuaren lagunen elkarteak** egitea eta horretarako behar den prozesua jarraitu behar da.

Kontratuaren xede diren lanak Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta aplikatu beharrreko gainerako legeetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

BIGARRENA – EGIN BEHARREKO LANAK

Abenduaren 24ko Olentzeroren Etorrera eta urtarrilaren 5eko Erregeen Kabalgata antolatzea eta koordinatzea. Horren baitan, ekitaldien aurretiko eta ondorengo balorazio bilerak egin beharko dira Tolosako Udaleko kultura, festak eta gazteria sailarekin koordinatuta.

HIRUGARRENA – KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratazioaren beharrari eta egokitasunari buruzko txostenean xedatutakoa hartuko da kontuan.

LAUGARRENA – KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango da:

- 2022ko abenduaren 24ko Olentzeroren Etorrera eta 2023ko urtarrilaren 5eko Errege Kabalgata

ESKU4e16e98b-72b9-4b85-b571-d2d964026788

- 2023ko abenduaren 24ko Olentzeroren Etorrera eta 2024ko urtarrilaren 5eko Errege Kabalgata

Hala ere, kontratua beste bi urtez luzatu ahalko da:

- 2024ko abenduaren 24ko Olentzeroren Etorrera eta 2025eko urtarrilaren 5eko Errege Kabalgata
- 2025ko abenduaren 24ko Olentzeroren Etorrera eta 2026ko urtarrilaren 5eko Errege Kabalagata

BOSGARRENA - BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK

Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du badituela plegu honetan deskribatutako lan osoa egiteko baliabideak eta pertsonala, nahikoa eta espezializatua, eta proposatutako helburuak betetzeko esperientzia duena.

Herriko eragileekin elkarlanean antolatuko da bai Olentzeroren Etorrera, eta baita Erregeen Kabalgata ere, eta gutxienez eragile horiekin elkarlanean burutuko da. Herriko beste eragileek parte-hartzeko aukera suertatuz gero, Tolosako Udaleko kultura, festak eta gazteria sailarekin kontrastatu beharko du adjudikaziodunak.

Baliabide pertsonalak

- Herriko aisialdi taldeak: Kirikiño, Kazkabarra, Gorosti guraso elkartea, Ttenttek, San Bernardo, Atsedena
- Erraldoi eta Buruhaundiak
- Udaberri dantza taldea
- Tolosako Musika Banda
- Txistulari banda
- Dultzainero taldeak. Giro arte eta Tolosako Dultzaineroak

Baliabide materialak

Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunak jarri beharko ditu zerbitzua emateko beharrezko baliabide pertsonalak eta materialak, eta hurrengoak izango dira gutxienekoak:

- Antortxak
- Bengalak
- Kriseiluak
- Lasto fardoak
- Olentzero eta Mari Domingi gurdi gainean
- 3 errege magoak, hauen pajeak eta bakoitzari dagokion zaldia

SEIGARRENA - HARREMANAK UDALAREN ETA ADJUDIKAZIODUNAREN ARTEAN

Adjudikaziodunari dagozkio kontratua Plegu honetan eta Baldintza Administratiboen Pleguan aurreikusitako baldintza teknikoetan gauzatzea, eta kontratazio-organoak emandako jarraibideen arabera.

Aurrera daramatzan lanen kalitate teknikoaz eta ematen dituen zerbitzuez arduratzea, bai eta Udalarentzat edo beste batzuentzat lanen exekuzioan izandako omisio, akats, metodo desegoki edo ondorioztapen okerretatik datozen ondorioez. Beraz, adjudikaziodunaren betebeharra izango da kontratua exekutatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrengoei eragindako kalte eta galera guztien ordaina ematea.

ZAZPIGARRENA - HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982

ESKU4e16e98b-72b9-4b85-b571-d2d964026788

TOLOSAKO UDALA

Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duen arauek erregulatua.

Tolosan, 2022ko urriaren 20an

Nerea Cereceda Gurrutxaga
Gazteriako Udal teknikaria

Nork Sinatua / Firmado por: NEREA CERECEDA GURRUTXAGA - 44166112V
2022/10/20 12:30:00

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4e16e98b-72b9-4b85-b571-d2d964026788**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***